

Belarriak erne, mingaina prest

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

Hizkuntza zaharra, gazte bilakatu dugu: familia gazteen hizkuntza, parkeetako hizkuntza... Atera dezagun dantzara gure hizkuntza gaztea

Larunbata da Bilbon. Astero bezala erosketak egitera atera naiz auzoko dendetara. Fresko dago eta kalean jende gutxi dabil. Lehenengo, kioskora hurbildu naiz, egunkariak hartzera. Josune, saltzailea, emakume jatorra da, nire adin bertsukoa, eta Buia auzoan bizi da, Bilbo aldeko natur gunerik ederrenetako batean. Bilboko aldaera edo azpieuskalkia mantendu zuen azken gotorlekua. Toki izen guztiak euskaraz ditu auzoak baina bertako biztanleek aspaldi utzi zioten euskaraz hitz egiteari. Haien seme-alabek berreskuratu dute euskara, batzuk errazago besteek nekezago, hezkuntza sistemaren bitartez, baina ez da erraz kalean haien euskara entzutea. Juanjoren dendara sartu naiz ondoren, arrautzak erostera. Eta handik auzoan daukagun supermerkatua, astekoak egitera. Han Asun, Aurora, Ofelia, Edurne, Maria Luisa, Xaqui eta Pedro agurtu ditut. Urtetako harremanak pizten duen harreman goxoa daukagu eta badugu elkarren berri. Diosala egiteko agur hitzak kenduta, euskararen arrastorik ez. Ardoa erosten dugun dendatik okindegira, eta handik etxera. Asteroko plana. Ordu pareta etxetik kanpora eta euskaldun bakar bat ere ez. Gazteak eguerdi edo arrats aldera agertuko dira kalera, eta agian, orduan entzungo ditugu hitz bakar batzuk euskaraz auzoan. Gure adineko jendea ibili ohi den Euskadiko auzo askotako hizkuntza-paisaia da, asteko egunik gehienetan eta eguneko ordurik gehienetan.

Zorionez, halere, bestelako egoera duten guneak ere badira gure hiri eta lurraldean eta horrek garrantzi berezia ematen die gunerik euskaldunenei. Euskararen mapak, beraz, margo ezberdinak ditu Euskal Herrian, eta euskal hiztunen multzoek tamaina ezberdina hartzen dute tokitik tokira eta belau-naldiz belaualdi. Euskarak egin duen aurrerabideaz hitz egiten dugunean modu orokorrean egin ohi dugu, eta batz besteko datuak ematen ditugu, baina egoerak oso ezberdinak dira batetik bestera. Gune soziolinguistikoen egoera hau kontutan hartu beharko genuke euskaldunok euskararen normalkuntzaz hitz egiten dugunean, euskararen aldeko diskurtsoak egiten ditugunean eta helburuak ipintzen ditugunean. Bestela frustrazioan bizitzeko arriskuan gaude.

Hizkuntza gaztea. Gure auzoan lan egin eta bizi diren gehienak bertakoak dira eta euskara inoiz ezagutu gabekoak; beste batzuk kanpotik etorriak, eta gutxi batzuk, euskaraz zerbait jakin bai baina gaztetan galdutakoak. Oso-oso gutxi dira gaueskola edo euskaltegietan ikasitakoak. Baina hauek eredugarri dira, dakiten euskara hori, maila batekoa edo bestelakoa izan, nonahi eta edozertarako astintzen baitute. Motibazio izu-



JOSEMARI ALEMÁNAMUNDARAIN

garria dute eta egoerarik zailenetan ere ateratzen dute plazara. Edozein kasutan, ongi jakin, zerbait jakin edo ezer ez jakin; gehien-gehienek euskarazko eredueta bidali dituzte seme-alabak eskolara, eta euskara haur eta gazteen bitartez etxera ekartzeko erabakia hartu dute. Erabaki horrek gure euskararen beheranzko joera geldiarazi du eta euskara gazteen hizkuntza bihurtu du. Edo hobeto esanda, hizkuntza gaztea. Guk dakigula ez da beste inon gertatu hizkuntza gutxitua izatea gazteen mintzaira, edadetuena izan beharrean. Gure gizartearen ere, ez dezagun ahaztu, zaharren hizkuntza zen duela berrogei urtera arte. Gutxien hitz egiten den tokietan beraz, euskararen erabileraren zabalkundea gazteen eskutik dator. Eta laguntza behar dute. Eskolatik kalera ateratzen lagundu behar diegu, eskolakirolera, aisialdira, lagun artea, gazte hauen ezpain-belarrietatik iristen ari baita euskara unibertsitatera, lanbide-hezkuntzara edo lan-mundura.

Euskara entzun eta hitz egiteko prest. Belarriprest txapa jantzita sartu naiz arropa-denda ezagun batera. Txaparik ez eraman arren, irriparre batez, belarriprest dela esan dit dendari dagoen neska gazteak. Eta euskaraz hitz egin dugu ahal izan duguna. Euskal hiztunak ikusezin garen guneetan Euskaraldiak euskaraz noiekin hitz egin deza-

kegun antzematen lagundu digu eta horrek hizkuntza-ohiturak alda ditzake. Euskaraldi asko beharko ditugu oraindik; Ahobiziak, belarriprestak eta ari-guneak; Hizkuntza-eskubideen bermea eta ekimena; Hezkuntza-sistema, eskolategiak, eskolaz kanpoko jardunak, aisialdia, teknologia berriak, edukiak eta euskarriak, hedabideak,... Dena beharko dugu. Belarriak erne, euskara noiekin hitz egin dezakegun asmatzeko, eta mingaina prest, nori zuzendu jakiteko. Eta etengabeko ahalegina. Asko falta zaigu euskararen normalkuntza lortzeko, baina asko aurreratut dugu. Hizkuntza zaharra, gazte bilakatu dugu: familia gazteen hizkuntza, parkeetako hizkuntza, unibertsitate-campusetakoa, kultur emanaldietakoa... Atera dezagun dantzara gure hizkuntza gaztea.

Gure bizilagun dira Osmon eta Nora, eta bi alabatxo txiki eta polit dituzte. Aita, arkitektoa, norvegiarra da eta ama, bihotzeko zirujaua, katalana. Eskolan hasiak dira haurrak. Zaharrenak papparean daramadan belarriprest txapa ikusi dit eta esan dio amari: nik horrelakoa nahi dut. Umea ez da gai euskaraz erantzuteko oraindik baina erdi-lotsatuta eta amaren hanka artean ezkutatuta, esan diodan guztia ulertu dit. Berehala konturatu naiz hizketan oraindik trebatu ez den bere ahizpa txikiak ere ulertzen nauela.